



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 24a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—11-23/PRO-00010. Foru Lege proposamena, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko mar-
txoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkez-
tu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/POR-00180. Galdera, lehorreak Nafarroako Foru Komunitateko abeltzainei ekarritako ondorioei buruzkoa. Galdera erretiratzea (4. or.).
- 11-23/POR-00184. Galdera, lehorreak eta Ukrainako gerrak Nafarroako abeltzainei eta nekazariei ekarri-
tako ondorioei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (4. or.).
- 11-23/POR-00185. Galdera, Irakurketa Publikoaren Nafarroako Mapa berri bat egiteari buruzkoa. Carlos
Guzmán Pérez jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00186. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagileei eta erizainei onartu
bai baina ordaindu ez zaizkien lanbide-karrerako zenbatekoei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez
andreak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00187. Galdera, Siemens Gamesa enpresaren berregituraketari buruzkoa. Ana María Elizalde
Urmeneta andreak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00188. Galdera, Siemens-Gamesaren fabrikak eta enplegua mantentzen laguntzeko neurriei
buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00189. Galdera, MRR funtsekiko azpiproiektuei buruzkoa. Ainhua Unzu Garate andreak egin
du (7. or.).
- 11-23/POR-00190. Galdera, Nafarroako Gobernuak emanen duen arreta presentzialari buruzkoa. Marta
Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00191. Galdera, Estanca de los Dos Reinos KBE eta HBBeko hezegunearen habitataren
kolapsoa ekidite aldera Bardeako Ureztatzailleen Elkarteko II. Sektorearekin sinatutako hitzarmenari
buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (8. or.).

- 11-23/POR-00192. Galdera, Herritarren segurtasunaren arloan Foruzaingoa Nafarroan erreferentziazko polizia izateko neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).
- 11-23/POR-00193. Galdera, Nafarroan sexu-askatasunaren aurkako delituak areagotu izanari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/POR-00194. Galdera, zoru etiko komun batera iriste aldera Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak egindako urratsei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/POR-00195. Galdera, gurasoak bereizita dauzkaten seme-alabek eskola-garraiorako eskubidea izateari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00196. Galdera, mikroplastikoen eta belar artifizialeko zelaiak berritzearen inguruko Europako araudiari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00197. Galdera, Forestalia enpresaren goi-tentsioko linearen proiektuari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- 11-23/POR-00198. Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoa aldatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00199. Galdera, palestinar herriari laguntza humanitaria emateari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00200. Galdera, lehendakaria Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorrean ez egoteari buruzkoa, prozeseko auzipetuen amnistiaz eztabaidatzeko. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00201. Galdera, Nafarroan enplegurako etorkizunari begirako erronkei buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00202. Galdera, 2024ko aurrekontuetako epe eta lehentasunei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20230034. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa) (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

11-23/PRO-00010. Foru Lege proposamena, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,
Klima-aldaketari eta
Energia-trantsizioari buruzko
martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea
aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak 2022ko martxoaren 22an onetsi zuen Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko Foru Legea.

Foru lege horren 18. artikulua bigarren apartatua honako hau ezartzen da: "Aurreko apartatua jasotako tresnek aurreikusten dituzten hirigintza-garapen berrietan lurzoru-zati bat gordeko da energia berriztagarria sortzeko, eta horren azalera nahikoa izanen da garapen horren energia-beharren baliokidea, urtealdikoa, sortzeko".

Xedapen horren aplikazio zehatz eta zorrotza praktikan ez da bateragarria garapen jasangarriko helburuekin, bideraezin egiten baititu etxebizitza beharrianak asetzeko plangintza batekin bat datozen hirigintza-garapenak, lurraldearen okupazio eraginkorra eta beharrezkoak diren dotazioak eta zerbitzuak aurreikusita, bai eta beharrezkoa den azpiegitura berdea eta gune libreak ere, horiek guztiak aipatu foru legean adierazitako helburuak baitira.

Hori horrela, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzea proposatzen da, honelaxe:

Artikulu bakarra. Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 18. artikulua 2. apartatua kentzen da.

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00180. Galdera, lehorreak Nafarroako Foru Komunitateko abeltzainei ekarritako ondorioei buruzkoa

GALDERA ERRETIRATZEA

2023ko urriaren 23an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Carlos Mena Blasco jaunak erretiratu duela lehorreak Nafarroako Foru Komunitateko abeltzainei ekarritako ondorioei buruz egindako galdera, zeina 2023ko urriaren

20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/POR-00184. Galdera, lehorreak eta Ukrainako gerrak Nafarroako abeltzainei eta nekazariei ekarritako ondorioei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, lehorreak eta Ukrainako gerrak Nafarroako abeltzainei eta nekazariei ekarritako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ukrainako gerrak eta lehorreak Nafarroako Foru Komunitateko abeltzainei eta nekazariei 2023an eragindako kalteak direla-eta: Zer egin da abeltzain nafarrek izandako kalteei aurre egiteko?

Iruñean, 2023ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-23/POR-00185. Galdera, Irakurketa Publikoaren Nafarroako Mapa berri bat egiteari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Irakurketa Publikoaren Nafarroako Mapa berri bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Liburutegi Publikoen XI. Biltzar Nagusia oraingo aste honetan egingen da Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregian, Kultura Ministerioak Liburuaren, Komikiaren eta Irakurketaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, "Demokrazia eta liburutegi publiko-
ei buruzko politika europarrak" lelopean.

Ekitaldi horrek, hain zuzen ere, toki onean uzten du Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarea, zeina Espainia osoko onenetariko bat izan baita urte askoan, bertako langileen lan onari esker alde batetik eta orain dela urte asko egin zen apustuari esker beste alde batetik; izan ere, apustu hark ahalbidetu zuen Nafarroan egun irekita egotea 90 liburutegi publiko baino gehiago, zerbi-

tzu zuzen eta gertukoa ematen dietenak hamar nafarretik bederatziri.

Halere, mesede eskasa egingen genioke geure buruari baldin eta iraganean egindakotik bizi nahi bagenu eta Nafarroako gizarteak bizi dituen aldaketak –populazioari, kultura kontsumoari, informazio eskariari edo elkarguneei dagozkienak– ikusteko gai izanen ez bagina.

Hortaz, egungo zerbitzuak bermatzen jarraitzeaz gain, behar-beharrezkoa da gure liburutegi publikoen sarea modernizatzea, erantzun bat emateko gai izan dadin gaurko nahiz biharko kultur, informazio nahiz gizarte beharrezkiz, hala landa-esparruan nola herri handietan.

Aurrerapauso horrek berekin dakar, gure ustez, Nafarroako kultur politikaren plangintza berri bat, liburutegietako plantilla handitzea eta hobetzea ekarri beharko lukeena –zenbait egokieratan ematen ari den pribatizazioari bidea itxi bidenabar, bai eta instalazioena eta Liburutegi Zerbitzuaren egiturarena ere.

Egin beharreko aldaketa horiek guztiek –liburutegiendako aurrekontu-partida ere aldatu behar da– argi dago arlo horretan Nafarroak bizi duen errealitateari buruzko azterlan sakon batean oinarritu behar direla.

Liburutegi Zerbitzuak aurreikusita al du Nafarroako Irakurketa Publikoaren Mapa berri bat egitea? Izan ere, funtsezko tresna bat da foru-erkidegoan liburutegi publikoen zerbitzuaren plangintza estrategikoa egiteko, egin zen azkena, zaharkituta egoteaz gain, garatu ere ez baitzen egin.

Iruñean, 2023ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-23/POR-00186. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagileei eta erizainei onartu bai baina ordaindu ez zaizkien lanbide-karrerako zenbatekoei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagileei eta erizainei onartu bai baina ordaindu ez zaizkien lanbide-karrerako zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuek eta erizainek zergatik ez dute oraindik jaso lanbide-karrera dela-eta onartu zaien dirua?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/POR-00187. Galdera, Siemens Gamesa enpresaren berregituraketari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Siemens Gamesa enpresaren berregituraketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan nahiz Espainiako gainontzeko lurraldeetan Siemens Gamesa enpresa berriz ere berregituratuko delako albisteak ikusita, Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen enpresak Nafarroan dituen langileen enpleguan izan ditzakeen ondorio negatiboak minimizatzen?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-23/POR-00188. Galdera, Siemens-Gamesaren fabrikak eta enplegua mantentzen laguntzeko neurriei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Siemens-Gamesaren fabrikak eta enplegua mantentzen laguntzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, izapidetu dadin eta urriaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Siemens-Gamesa enpresaren egoerari buruz ezagutu ditugun datuak gero eta kezkarriagoak dira bai maila ekonomikoan –galerak direla eta–, bai sozialean, enpleguan izan lezakeen eragin nabarmenaren ondorioz. Hori dela eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari honako hau galdetzen diogu: Nafarroako Gobernua zer neurri hartzen ari da Siemens-Gamesaren fabrikak mantentzea, eta, beraz, enplegua, babesteko?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-23/POR-00189. Galdera, MRR funtsekiko azpiproiektuei buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, MRR funtsekiko azpiproiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Zer epe daude Nafarroako Gobernuko departamentuei esleitutako MRR funtsen azpiproiektuen exekuziorako?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-23/POR-00190. Galdera, Nafarroako Gobernuak emanen duen arreta presentzialari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak emanen duen arreta presentzialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: uste al duzu egokia eta nahikoa dela Nafarroako Gobernuak 2023ko azaroaren 2tik aurrera eman behar duen aurrez aurreko arreta?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-23/POR-00191. Galdera, Estanca de los Dos Reinos KBE eta HBBEko hezegunearen habitataren kolapsoa ekidite aldera Bardeako Ureztatzaileen Elkarteko II. Sektorearekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Estanca de los Dos Reinos KBE eta HBBEko hezegunearen habitataren kolapsoa ekidite aldera Bardeako Ureztatzaileen Elkarteko II. Sektorearekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak honako galdera hau egin dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Bardeako Ureztatzaileen Elkarteko II. Sektorearekin Estanca de los Dos Reinos KBE eta HBBEko hezegunearen habitataren kolapsoa ekidite aldera sinatutako hitzarmenaren egoera, baita Estancaren ur-mailarena ere 2022an eta 2023an.

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-23/POR-00192. Galdera, Herritarren segurtasunaren arloan Foruzaingoa Nafarroan erreferentziazko polizia izateko neurriei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Herritarren segurtasunaren arloan Foruzaingoa Nafarroan erreferentziazko polizia izateko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Bartzordean erantzun dezan: zer neurri hartuko duzu Foruzaingoa erreferentziazko polizia izan dadin Nafarroan herritarren segurtasunari dagokionez?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-23/POR-00193. Galdera, Nafarroan sexu-askatasunaren aurkako delituak areagotu izanari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroan sexu-askatasunaren aurkako delituak areagotu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako eledun Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Zer neurri hartuko dira Nafarroan sexu-askatasunaren kontrako delituen gorakada ekiditeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-23/POR-00194. Galdera, zoru etiko komun batera iriste aldera Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak egindako urratsei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, zoru etiko komun batera iriste aldera Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak egindako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, izapidetu dadin eta urriaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Duela hilabete eskas, birformulatutako Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilari eta bigarren lehendakariordeak aurkeztu zizkigun Departamentuak legegintzaldi honetarako dituen ildo estrategikoak.

Memoria eta bizikidetzeta, azken laurogeita hamar urteetako gure historiaren arrazoiak direla eta –guztioak aski ezagutzen ditugunak–, hainbat hamarkadatan jorratu gabeko gaiak izan dira, eta 2015. urteaz geroztik lehentasunezko izaera eman zitzairen. Geure iraganari heldu behar genion, itzulingururik gabe, engainurik gabe, eta ausardiaz, zauri zaharrak beldurrik gabe ixteko eta etorkizun argi bati aurre egiteko asmoz, non indarkeria guztiak jorratuko ziratekeen, biktima guztiengana inolako bereizketarik gabe hurbilduz.

Askotan hitz egin da zoru etiko komun bat lortzeko beharraz, eta horren harira, honako galdera hau egiten diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari: zer urrats eman ditu eta emango ditu zure departamentuak helburu hori lortzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-23/POR-00195. Galdera, gurasoak berezita dauzkaten seme-alabek eskola-garraiorako eskubidea izateari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, gurasoak berezita dauzkaten seme-alabek eskola-garraiorako eskubidea izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Eneka Maiz Ulaiar andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentaria denak, Gaineraren Araudiari jarraiki ondoko ahozko galdera egin nahi dio Osoko Bilkuran Hezkuntza Kontseilariari, Carlos Gimeno Gurpegui jaunari.

Berezita dauden gurasoen seme-alabek eta bi bizileku dituzten kasuetan, ikastetxerako garraioa bi toki desberdinetatik hartu behar izaten dute, baina bakarrik garraio horietako baterako jasotzen dute Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza. Horren aurrean, honako galdera egiten diogu Hezkuntza kontseilariari: zer plan du Hezkuntza Departamentuak, bikote bereztuen seme-alabek eskolarako garraioa egunero bermatua izan dezaten, bietako edozein etxetan egonda ere?

Iruñean, 2023eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-23/POR-00196. Galdera, mikroplastikoen eta belar artifizialeko zelaiak berritzearen inguruko Europako araudiari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, mikroplastikoen eta belar artifizialeko zelaiak berritzearen inguruko Europako araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 2023ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aurreko astean ezagutu dugu Europako Batzordearen mikroplastikoei buruzko araudi berria, horien hedapenaren aurkako neurri izan nahi baitu.

Kirol-azalera artifizialetan erabili ohi den betegarri pikortsua –hau da, soropil artifizialeko zelaiak– alde nabarmenarekin da mikroplastikoen igorle handiena; ondorioz, instalazio horiek berritu beharra dago, are gehiago kontuan hartzen badugu 8 urteko epea eman dela horien ordezkioak bilatzeko.

Nafarroan soropil artifizialeko 50 futbol-zelai baino gehiago daude epe hori bete beharko dutenak.

Nafarroako Kirolaren Institutuak zer plan edo neurri ezarriko du zelai horietan esku hartzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-23/POR-00197. Galdera, Forestalia enpresaren goi-tentsioko linearen proiektuari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Forestalia enpresaren goi-tentsioko linearen proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

2023ko urriaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena eman duela, zenbait baldintzarekin, Forestalia enpresak jarri nahi duen goi-tentsioko lineari, zeina Red Eléctrica Española​l​ak Sakanan jarri nahi duenarekiko paraleloan joanen bailitzateke.

Forestalia enpresaren beste proiektu bat gehiago da. Oso goi-tentsioko beste linea bat da,

400KV-koa eta 270 Km-koa Zaragoza eta Gatika artean, enpresa horren poligono eolikoetan sortutako elektrizitatea eramateko: Keneo, Kaori, Kari, Kasumi, Keiko eta Kirin, Uncastillo (Zaragoza) aldean.

Goi-tentsioko linea hori Zarrakastelutik sartzen da Nafarroan, eta Kaseda, Galipentzu, Murillo, Uxue, Pitillas, Beire eta Erriberri zeharkatu ondoren EA​Erantz doa.

Ministerioak proiektuari ezarritako baldintzen artean nabarmentzen da Forestaliaren lineak REEren linearekin partekatu behar dituela babesak, "baldin eta teknikaren eta araudiaren arabera hori egiterik badago". Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean honako hau esaten da: "Linea egiteko azken proposamenak linea egitean ukitutako autonomia-erkidegoetako ingurumen arloko organoen aldeko txostena izan behar du".

2022ko apirilean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bigarren txosten bat – aurkakoa – igorri zion ministerioari, 2021ean egindako lehen azterlanari Forestaliak aurkeztutako alegazioei erantzuteko.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari: Zer jarduketa abiatu gogo ditu Nafarroako Gobernuak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrean baliatzeko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektu horren aurka emandako txostenak eta Ministerioak aipatu txostenak errespetatzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-23/POR-00198. Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoa aldatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoa aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, urriaren 26ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Lehendakariaren ustez zertan aldatu da nafarren iritzia, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa beharrezkoa egiteraino?

Iruñean, 2023ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/POR-00199. Galdera, palestinar herriari laguntza humanitarioa emateari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, palestinar herriari laguntza humanitarioa emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak urriaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Gazako zerrendako populazioa jasaten ari den krisi larria dela-eta: Zer laguntza humanitario aurreikusten du Nafarroako Gobernuak palestinar herriari igortzeko?

Iruñean, 2022ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-23/POR-00200. Galdera, lehendakaria Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorrean ez egoteari buruzkoa, prozeseko auzipetuen amnistiaz eztabaidatzeko

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, lehendakaria Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorrean ez egoteari buruzkoa, prozeseko auzipetuen amnistiaz eztabaidatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Zergatik ez zen lehendakaria agertu joan den ostegunean, urriak 19, Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorrean deialdira, prozeseko auzipetuen amnistiaz eztabaidatzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-23/POR-00201. Galdera, Nafarroan enplegurako etorkizunari begirako erronkei buruzkoa

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan enplegurako etorkizunari begirako erronkei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2023ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Zeintzuk dira Nafarroan enplegurako etorkizunari begirako erronkak?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

11-23/POR-00202. Galdera, 2024ko aurrekontuetako epe eta lehentasunei buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2024ko aurrekontuetako epe eta lehentasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Zer epe eta zer lehentasun aurreikusten ditu zure Gobernuak 2024ko aurrekontuak Nafarroako Parlamentuan aurkezteko?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20230034. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa)

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

137/2023 Ebazpena, urriaren 19koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin betiko zerrenda.

2023ko ekainaren 30eko 137. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiak –alegia,

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa) oposizio bidez betetzekoak– 5. oinarrian ezarritako-arekin bat, honako hau EBATZI DUT:

1. Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona hemen:

IZANGAI ONARTUAK:

| IZEN-ABIZENAK | Desgaitasuna | Bitartekoak egokitzea eskatu du | Merezimenduak aurkeztu ditu |
|----------------------------------|--------------|---------------------------------|-----------------------------|
| Aguas Gurpegui, Francisco Javier | | | BAI |
| Agurruza Mutuberria, Maria Luz | | | BAI |
| Arce Guillén, Maria Elena | | | BAI |
| Arezana Sarasola, Oskar | | | EZ |
| Berastegui Zabalza, Asier | | | BAI |
| Berrueta Martínez, Iñigo | | | BAI |
| Casado Redín, Pablo | | | BAI |
| Cazador Pérez, Rubén | | | BAI |
| Delgado Soto, Fernando | | | BAI |
| Ducun Olite, Alberto | | | BAI |
| Eslava Irulegui, Jose Miguel | | | BAI |
| Esparza Martín, Jon | | | BAI |
| Flores Ramos, Ángel Ignacio | | | BAI |
| Gabaldon Hurtado, Alberto | | | BAI |
| García Moneo, Miguel Angel | | | BAI |
| Goñi Echauri, Xabier | | | BAI |
| Gurpegui Olloqui, Míriam | | | BAI |
| Ibiricu Urriza, Eduardo | | | BAI |
| Labayen Errea, José Javier | | | BAI |
| Lezaun Echauri, Iosu Eder | | | BAI |
| López Loro, Fernando | | | BAI |

| | | | |
|---|-----|----|-----|
| Macua Sádaba, Carlos Ezequiel | | | BAI |
| Martínez Monreal, Ismael | | | BAI |
| Martínez Rodríguez, Francisco Javier | | | BAI |
| Melero Echaide, Francisco Javier | | | BAI |
| Merino Lorea, Iñigo | | | BAI |
| Munguira Eizondo, Rut | BAI | EZ | BAI |
| Oiz Fernandez, Fermin | | | BAI |
| Olite Ochoa de Olza, Carlos | | | EZ |
| Otero Pequeño, Samuel | | | EZ |
| Ozcoidi Latorre, Mikel | | | BAI |
| Paucar Pimentel, Alex | | | BAI |
| Paucar Pimentel, Ivan | | | EZ |
| Perez Izquierdo, Bernardo | | | BAI |
| Pérez Picón, José Luis | | | BAI |
| Prieto Dueñas, Ricardo | | | BAI |
| Rodríguez Morales, Manrique | | | BAI |
| Rodríguez Pérez, Antonio Fernando | | | EZ |
| Salvoch Alegria, Garikoitz | | | BAI |
| Sánchez Zufía, Sergio | | | BAI |
| Torres Echevoyen, Enrique | | | BAI |
| Torres Seoane, Eduardo | | | BAI |
| Unzue Pulido, Raul | | | BAI |
| Urrutia Sagardia, M ^a Teresa | | | BAI |
| Vázquez Arteta, Asier | | | BAI |
| Vidondo Pérez, Cristian | | | BAI |

IZANGAI BAZTERTUAK:

| IZEN-ABIZENAK | Desgaitasuna | Bitartekoak egokitzea eskatu du | Merezimenduak aurkeztu ditu | Baztertze arrazoia |
|---|--------------|---------------------------------|-----------------------------|--------------------|
| Anaya Huarte, M ^a Águeda | | | EZ | (1) (2) |
| Baigorri Vázquez, Francisco Javier | | | EZ | (1) |
| Resano Juanicorena, M ^a José | | | EZ | (1) (3) |
| Zubieta Erkizia, Mikel | | | BAI | (1) |

- (1) Ez du aurkeztu deialdian parte hartzeko betekizun gisa exijitzen den titulazio ofizialaren fotokopia, deialdiaren 3.5 oinarriak xedatzen duenaren arabera.
- (2) Ez du aurkeztu azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiririk, deialdiaren 3.8 oinarriak xedatzen duenaren arabera.
- (3) Ez du egiaztatu azterketa egiteko eskubidea ordaintzetik salbuetsita egotea, ez baitu aurkeztu Enplegu-bulegoak emandako ziurtagiririk, zeinetan jasotzen baita deialdi hau argitaratu aurreko hilabeteko epean, gutxienez ere, langabe gisa izena eman duela eta izena emateko epean ez diola uko egin eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik. Ez du aurkeztu, halaber, hileroko lanbide arteko gutxieneko soldatatik goitiko errentarik ez duelako erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskineko ereduaren arabera, deialdiaren 3.8 oinarrian ezartzen denaren arabera.

2. Honako hauek dira Nafarroak Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kalifikazio-epaimahaiko kideak:

- Titularra: Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

- Ordezkoa: Josetxo Martínez Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko komunikazio teknikaria.

3. Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
